



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko otsailaren 10a

15. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea aldatzen duena. Ana Beltrán Villalba foru parlamentari andreak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, mendekotasun egoeran dauden pertsonak etxean egon ahal izateko laguntza ekonomikoei buruzkoa. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

- Lege proposamena, Prozedura Zibileko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea aldatzen duena. Nafarroa Bai parlamentu taldeak aurkeztu du (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, justizia arloko eskumenak garatzeari buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (8. or.).
- Jabeldura, Foruzaingoaren arloko politika orokorrari buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (9. or.).
- Jabeldura, espetxe arloan garatu beharreko politika orokorrari buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren, Batxilergoaren modalitate guztien eta erdi eta goi mailako prestakuntza ziklo guztien egitura bere horretan mantentzearen aldeko iritzia. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Giza Eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntzaren gaia kentzearen aurkako iritzia. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Sunsundegui enpresaren salmenta-prozesua burutu dezan. Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordean izapidetzea (13. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, espezialitate mediko batzuetako itxaronzerrendak luzatzen ari direla ikusita, hartuko diren neurri-
ei buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (14. or.).

- Galdera, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak eginiko adierazpen batzuei buruzkoa. Horien arabera, zerga igoeraren xedea zorraren amortizazioa izanen da, beharbada. Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Gobernuo lehendakariak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa Sozietatearen Administrazio Kontseiluko lehendakari kargua hartzeko benetako arrazoari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (15. or.).
- Galdera, “Tierra Estella” BHIaren inaugurazioan izandako gertakariei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (16. or.).
- Galdera, bizitokiaren arabera garraio onkologikoari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (17. or.).
- Galdera, Lodosako Ibaialde ikastolaren egoerari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (17. or.).
- Galdera, defizita kontrolpean edukitzeko aginduari buruzkoa, Koldo Amezketa Díaz jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Arbizuko Udalarekin hitzartutako laguntza ordaintzeari buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egina (18. or.).
- Galdera, Barne Produktu Gordinak 2012an izanen duen igoeraren gaineko aurreikuspen berriari buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Hizkuntzen Autoikaskuntzako Nafarroako Zentroari buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (20. or.).
- Galdera, “Félix Garrido” osasun mentaleko egoitza abian ez jartzeko arrazoiei buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (20. or.).
- Galdera, kirol klubetarako dirulaguntzen deialdiei buruzkoa, Enrique Martín de Marcos jaunak egina (21. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ez dion erantzun iragan azaroaren 3an AHTaren gainean eginiko galderari, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (22. or.).
- Galdera, Eskola Mapa berriaren prestaketari buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egina (22. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuko zenbait kontusaili buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egina (23. or.).
- Galdera, Tuterako nekazaritza-elikagaien hiriko mantenimendu-zerbitzuari buruzkoa, José Miguel Nuin Moreno jaunak egina (24. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordea berritzeko hauteskundeetarako deialdia (25. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 1/2012 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 18koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (26. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Ana Beltrán Villalba foru parlamentari andreak aurkeztu du Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena, terrorismoaren biktimei oroitzapenez erakunde publikoen jarduna sustatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Terrorismoaren biktimei laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legeak argi eta garbi ezartzen du zioen azalpenean gizartearen gehiengo handi batek, eta zehazki Nafarroako Parlamentuak, irmotasunez gaitzesten dituela ekintza terroristak.

Legeak berak ezartzen du terrorismoa dela "herritarrek pairatu duten gaitz handienetako bat, biktimei eta haien senideei eragiten dien atsekabea izugarria baita; atsekabe hori gizarteak berak ere jasaten du, eta horren aurrean ez dago elkartasuna eta aintzatespena erakustea baino."

Nafarroak, 9/2010 Foru Legearen bitartez, terrorismoaren biktimei laguntzeko arau berekia onetsi zuen, osatu eta handitzen duena nazioan lehendik zegoen araudia, zeina lege mailarekin onetsi baitzen 1996an, 1999an eta 2003an.

Gizarteak biktimei eta haien senitartekoei elkartasuna eta aintzatespena adieraztearen kontzeptuak jasota zeuden jada araudian, eta 9/2010 Foru Legean ere ageri dira jasota.

Terrorismoaren biktimei laguntzeko lege honek Nafarroako gizarteak kolektibo horrekin duen zor moral eta materiala jorratzen ditu, eta, horrenbestez, horiei aintzatespen, laguntza eta elkartasun handiena eskaintzea proposatzen du.

Legearen edukiak berak luze eta zabal jorratzen ditu munta handikoak diren zenbait kontzeptu, nola diren terrorismoaren biktimei eskubideak –kalte fisiko eta psikikoengatik kalte-ordain ekonomikoak ezartzen dira–, bakerako eta bizikidetasunerako hezkuntzarekin lotutako auziak, laguntza-ekintzak, elkartasun funtsak eta sariak eta, besteak beste, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Batzordea sortzea.

Arestiko kontzeptu horiek ez bezala, 9/2010 Foru Legeak ez ditu jasotzen zor moralaren kontzeptua eta terrorismoaren biktimei nahiz haien senitartekoen memoria zaindu beharra; hortaz, egoki da une honetan erakunde publikoek, eta horien artean Nafarroako Parlamentuak, zeina Nafarroako gizartearen borondatearen ordezkaria eta gordetzaileria baita, hori dena aintzat hartzea. Bidezkoa da, halatan, gogoan hartzea 9/2010 Foru Legeko lehen artikulua ezartzen duela bere xedea dela hain zuzen ere "omenaldia egitea eta

aitorpenik handiena adieraztea ekintza terroristak pairatu dituztenei.”

Horregatik guztiagatik, ondoko aldaketa proposatzen dugu:

Artikulu bakarra. Terrorismoaren biktimei laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legeko 1. kapituluari –Arau orokorrak– artikulu berri bat gehitzea. Hona edukia:

“3. artikulua. Biktimen oroitzapena.

Nafarroako erakunde publikoek beren eginkizunak betetzean lagunduko dute terrorismoaren biktimen oroitzapena zaindu, mantendu, babestu eta aurreikusten.

1. Ekidin eginen dira, oro har, biktimen edo haien senitartekoen izen ona galtzea, gutxiespena edo umiliazioa dakarten egoerak.

2. Hartara, Foru Komunitateko entitateek ekidinen dute leku eta eraikin publikoetan egin daitezzen terrorismoari, banda terroristei edo legez kanpoko organizazioei laguntzea, haien apologia egitea edo goraipatzea dakarten ekitaldiak.

3. Entitate bakoitzak berea duen eskumen-esparruan jardunen du arestiko idatz-zatian jasotakoekin lotuta dauden pintaketen, afixen edo sinboloen nahiz elementuen aurka.

4. Nafarroako erakunde publikoek sustatuko dute bizikidetasun libre eta demokratikoko guneak sortzea, zeinetan indarkeriaren legitimazioa behin betikoz desagerrarazirik geldituko baita.”

Foru Lege proposamena, mendekotasun egoeran dauden pertsonak etxean egon ahal izateko laguntza ekonomikoei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du mendekotasun egoeran dauden pertsonak etxean egon ahal izateko laguntza ekonomikoei buruzko Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea mendekotasun egoeran dauden pertsonak etxean egon ahal izateko laguntza ekonomikoei buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mendekotasun egoeran dauden pertsonak etxean egon ahal izateko laguntza ekonomikoei buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Iragan abenduan 2012ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea onetsi izanak ekarri du, besteak beste, mendekotasun egoeran dauden pertsonak etxean egon ahal izateko eta haien zaintzaileei laguntzeko laguntza ekonomikoen gutxieneko eta gehieneko zenbatekoak murriztea.

Halaber, abenduaren 23ko 247/2011 Foru Aginduaren bidez bertan behera uzten dira mendekotasunaren arloko zerbitzu bat kontratatzeko laguntza ekonomikoa.

Mendekotasun egoeran dauden pertsonak beren ohiko ingurunean egon daitezzen erraztasunak ematea da Foru Legearen abiapuntuetako bat, bai eta gizarte zerbitzuen zorro orokorrarena ere.

Horrekin lotuta, Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezartzen da beharrezkoa dela mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta integrala, integratua eta pertsonalizatua ematea eta beha-

rrazkoak diren baldintzak sustatzea, pertsona horiek ahalik eta autonomia maila handienarekin bizi daitezten. Horretarako, mendekotasuna duten pertsonak bizitza egiten duten inguruan egonen dira, ahal den neurrian.

Hori guztia dela eta, ulertzen da aipatu laguntzen murrizketa oztopo izanen dela lege desberdinetan ezartzen diren helburuak lortzeko; hau da, mendekotasuna duten pertsonak ohiko inguruan egon daitezten erraztea. Halaber, zeharka bada ere, eragin kaltegarria izan dezake enpleguan ere, mendekotasunaren arloko zerbitzu bat kontratatzekeo laguntza ekonomikoak kendu baitira.

Foru Lege proposamen honen bidez arautzen dira mendekotasun egoeran dauden pertsonak

etxean egon ahal izateko eta haien zaintzaileei laguntzeko laguntza ekonomikoaren zenbatekoak, bai eta zerbitzu bat kontratatzekeo laguntza ekonomikoaren ere. Hala, 2011n indarrean zeudenak mantentzen dira eta, horrenbestez, ez da murrizketarik aplikatzen.

Artikulu bakarra. Mendekotasun egoeran dauden pertsonak etxean egon ahal izateko laguntza ekonomikoak

1. 2012ko ekitaldian eta hurrengoetan, mendekotasun egoeran dauden pertsonak etxean egon ahal izateko eta haien zaintzaileei laguntzeko laguntza ekonomikoaren gutxieneko eta gehieneko zenbatekoak ondokoak izanen dira:

Mendekotasun egoera	Gehienekoa euro/hilean	Gutxienekoa euro/hilean
Mendekotasun handiko egoera, 2. maila	603,16	389,35
Mendekotasun handiko egoera, 1. maila	603,16	311,80
Mendekotasun larriko egoera, 2. maila	452,45	252,18
Mendekotasun larriko egoera, 1. maila	452,45	225,00
Mendekotasun moderatuko egoera, 2. maila	180,00	60,00

2.- 2012ko ekitaldian eta hurrengoetan, mendekotasun egoeran dauden pertsonak etxean egon ahal izateko eta zerbitzu bat kontratatzekeo laguntza ekonomikoaren gutxieneko eta gehieneko zenbatekoak ondokoak izanen dira:

Mendekotasun egoera	Gehienekoa euro/hilean	Gutxienekoa euro/hilean
Mendekotasun handiko egoera, 2. maila	806,03	389,35
Mendekotasun handiko egoera, 1. maila	806,03	311,80
Mendekotasun larriko egoera, 2. maila	638,66	252,18
Mendekotasun larriko egoera, 1. maila	638,66	225,00

Xedapen indargabetzailea.

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak eta, zehazki, 2012ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen bigarren xedapen gehigarria.

Azken xedapen bakarra.

Foru lege honek indarra hartuko du argitaratu eta biharamunean, eta 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izanen ditu.

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, Prozedura Zibileko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroa Bai parlamentu taldeak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz eta Espainiako Konstituzioaren 87.2 artikulua babesean, Prozedura Zibileko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea aldatzen duen Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 212. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Prozedura Zibileko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea aldatzen duen Lege proposamena izapidetzeko onartzea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Lege proposamena, Prozedura Zibileko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea aldatzen duena

Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeko 576. artikulua aldatzeko proposamena. Hain zuzen ere, artikuluko horren 1. paragrafoa aldatu eta 4. paragrafoa erantsi nahi zaio. Hona testua:

1. Diru-kopuru likidoa ordaintzeko kondena ezarri duen epai edo ebazpen orok, lehen auzialdian eman denetik, beti ekarriko du urteko korritua sortzea hartzekodunaren mesedetan. Urteko korritu hori izango da diruaren legezko korritua gehi bi puntu.

4. Kreditu entitate, banku edo kutxa batek kreditua mugaegunera iritsi dela deklaratzeko duen kasu guztietan, bide egokirik errekamazioa egite aldera, bide judiziala ere barne dela, legezko korritu soila sortuko da; hau da, ez dira korrituen korrituak sortuko harik eta lehenengo erabaki judiziala eman arte; hortik aurrera, izan ere, 1. paragrafoa aplikatuko da.

Zioak:

576. artikulua aldatzeko eginiko proposamenari dagokionez, honako arrazoiak aurkitu ditugu, praktikan:

a) Artikulu hori beti aplikatu beharra dagoela, korrituei buruzko hitzarmenik egon nahiz ez egon, korritu arruntei nahiz berandutzarengatik hazitakoei dagokienez, eta beti prozedura-interesari buruzko irizpidea nagusitu behar dela, behin gaia judizialki izapidetu ondoren. Ez da ekitatiboa hitzartutako korrituen aplikazioak bere horretan irautea erabaki judizial baten ondoren. Korritu horiek zama oso handia izaten dira zordunentzat.

b) Bestalde, kreditu-entitateek, normalean, badute ahalmenik mailegu-kontratu bat amaitu dela deklaratzeko, eta une horretatik aurrera, normalean, polizetan aurreikusita dago berandutza korrituak hastea; korritu horiek, izan ere, kreditua ematerakoan ezarri zirenak baino askoz altuagoak dira. Une horretatik aurrera, eta bidezko diren legezko komunikazioak eginik, errekamazio judiziala egitera jo daiteke, eta, halere, litekeena da halakorik ez egotea denbora luzea iragan arte, eta tarte horretan guztian kreditu-entitateak berandutza-korrituak hartzen ditu, demanda judiziala aurkeztu ez izatearen ondorioz soil-soilik. Ekitateak exijitzen du berandutza-korrituak judizialki eskatu ahal izateko aldia laburtzea, daitezen entitate hartzekodunak kasuko demanda aurkezteko modurik izan ez duen aldiaren iraupenera.

Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeko 637. artikulua aldatzea. Hona testua:

1. Betearazpena jasango duen pertsonaren ohiko etxebizitza den etxebizitzaren betearazpen hipotekarioetan, ondasunaren balorazioa izango da bi aldeek hipotekarako hitzartutako erreferentzia gisa eginiko tasazioarena, eta ezin izango da izan inolaz ere hipoteka horren bidez bermatutako guztizko zenbatekoa baino txikiagoa, kontzeptu guztiak barne hartuta; hala nola, printzipala, korrituak eta kostu judizialak.

2. Gainerako kasu guztietan, enbargatutako ondasunak ez badira 634 eta 635. artikuluetan aipatutakoak, horien balorazioa egingo da, salbu eta alderdi betearazlea eta alderdi betearazia ondasunon balioaren gainean ados jarri direnean, betearazpena baino lehenago edo betearazpenean bertan.

Prozedura Zibileko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeko 670. artikulua aldatzeko proposamena. Hain zuzen ere, lehen paragrafo bat izan dezala nahi da, orain dauden 8 paragrafoen aurrekoa. Hona testua:

Paragrafo berria.

Betearazpena jasango duen pertsonaren bizitokia diren etxebizitzaren betearazpen hipotekarioetatik etorri diren enkanteetan, baldin eta aurkeztzen diren proposamenek ez badute gainditzen kalkulaturako balorazioaren prezioa, lege honen 637.1 artikuluari jarraituz, ulertuko da etxebizitza hori esleitu zaiola entitate betearazleari: a) esleipen horren unean betearazpena jasandako pertsonaren aurkako kredituari dagokion zenbatekoan, baldin eta zenbateko hori 637.1 artikuluen arabera zehaztutako prezioaz beherakoa bada; b) bestela, balorazio horren prezioan, baldin eta prezio hori betearazleak betearazpena jasan duen pertsonarekin duen kredituaz beherakoa bada. Nolanahi ere, enkantearen akta hirugarren bati edo entitate betearazleari eginiko esleipenaren titulua izango da.

Gainerako kasu guztietan, 670. artikuluko hurrengo zortzi arauak aplikatuko dira.

Zioak:

Urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeko 637. eta 670. artikuluen aldaketei dagokienez, honakoa esan beharra dago:

Lege hori indarrean sartzeak berarekin ekarri zuen enkante judizialean jarduten zuten erakundeak desagertzea. Hala eta guztiz ere, beste alde batetik, berarekin ekarri du higiezinak izugarri erraz esleitu ahal izatea, ohiko etxebizitza izan nahiz ez izan, kreditu-entitateei, hipoteka egiteko erabili zirenez oso behera dauden prezioetan.

Hipoteka egiteko orduan, entitate hipoteka-egilearen egintza bereki bat badago, zeina baita finka baloratzea ordainketa bermatzeko zenbutekoetan; hau da, printzipala, korrituak eta eskritura hipotekarioan bertan ezarritako kostuak.

Aldaketa honekin lortu nahi da akzio hipotekarioaz baliatzen den entitatearen aldeko esleipena koherentea izatea arestian aipatutako egintza bereki horrekin, eta, horrenbestez, ohiko etxebizitzaren edo bizitokiaren kasuan, esleipena ezin egitea hipoteka bidez bermatutako mailegu edo krediturako erreferentzia gisa erabili den prezioaz beherago.

Bestalde, betearazlearen kreditua balorazio-prezio hori baino txikiagoa bada, esleipena *ope legis* egin beharra dago, hau da, automatikoki, kreditu horren ordainketarako emate gisa, zeren eta betearazpena jasan duenak beti izango baitu aukera bere ondasunak libratzeko, Prozedura Zibilearen 1/2000 Legeko 670. artikuluko bigarren idatz-zatiko zenbakian aurreikusi bezala.

Xedapen indargabetzailea. Lege hau onestearekin, indarrrik gabe geldituko dira lege honen maila bereko edo apalagoko xedapenak, honetan ezarritakoari kontra egiten dioten artikuluei dagokienez.

Azken xedapena. Lege honek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, justizia arloko eskumenak garatzeari buruzkoa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko jabeldura, justizia arloko eskumenak garatzeari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkezten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariorde eta Lehendakariitzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilari Roberto Jiménez jaunari:

Jabeldura, justizia arloan hartutako eskumenen garapenaren gaineko politika orokorrari buruzkoa; zehazki, epaitegi edo organo judizial guztietan eta bereziki Iruñean ez daudenetan –Agoitz, Tafalla, Lizarra eta Tutera– zerbitzuak ematearekin lotutako gaietan, jakite aldera ea langileen nahiz zerbitzu-ematearen arloko gabeziak nahikoa arrazoi diren barruti judizialak aldatzeko, eta ea zer aurreikuspen dagoen aldaketa horiei buruz (egutegia, ondorio ekonomikoak eta funtzionamendu arloko ondorioak).

Zioen azalpena

Nafarroako zenbait epaitegi eta organo judizialetan, langile administratiboen eta mendeko langileen arloko gabeziak zailtasunak eragin ditu zerbitzua ematerakoan eta botere publiko horrek berezkoa duen lana egiterakoan, eta, ondorioz, abian dira azterlanak, analisiak eta, antza denez, egitura-aldaketetarako izapideak eta ekimenak ere.

Iruñean, 2012ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Jabeldura, Foruzaingoaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko jabeldura, Foruzaingoaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

ondoko jabeldura aurkezten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariorde eta Lehendakariitzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilari Roberto Jiménez jaunari:

Jabeldura, Foruzaingoari buruzko bere politika orokorrari buruzkoa: kidegoaren garapena eta polizia integrala bihurtzea, negoziazio kolektiboa, barne sustapena eta prestakuntza eta 55 urtetik aitzina bigarren enplegua edo destinoa izatea.

Zioen azalpena

Gai horiek guztiak jorratzeke daude Nafarroako Poliziei buruzko Legea azkenekoz aldatu zenez geroztik. Legegintzaldiaren hasieran prestasunez hartu ziren, baina orain arte ez da ezer zehaztu gai horiei dagokienez.

Iruñean, 2012ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Jabeldura, espetxe arloan garatu beharreko politika orokorrari buruzkoa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko jabeldura, espetxe arloan garatu beharreko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkezten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariorde eta Lehendakariitzako,

Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilari Roberto Jiménez jaunari:

Jabeldura, espetxe arloan garatuko duen politika orokorrari buruzkoa, eta, zehazki, Foruaren Hobetzean aurreikusitako espetxe arloko eskumena eskatzeko asmorik ba ote duen jakiteko eta, zehatz-mehatz, ea Iruñean Soltxateko espetxe berria abian jartzen denean osasun zerbitzua ematen jarraituko den –zehazki, osasun mentalekoa–, bai eta lan nahiz prestakuntza arloko beste hezkuntza zerbitzu batzuk eta birgizarteratze arloko lankidetzak eta esku-hartzea ere mantenduko diren.

Zioen azalpena

Parlamentuko eztabaida askotan, espetxe berria eraiki eta abian jarri arte atzeratu da Foruaren Hobetzean espetxe arloan aurreikusitako eskumenak eskatzea. Egunotan espetxe berria abian jartzen ari dira, eta, halere, Nafarroako Gobernuak ez du horri buruzko inolako urratsik egin.

Bestalde, eskumen horiek eskuratu ezean, mahai gainean geratzen da Nafarroako Gobernuak diru-laguntza eta ongintza izaeraz orain arte emandako laguntzen eta lankidetzaren gaia, orain auzitan jartzen dena. Hortaz, beharrezkoa da jakitea arlo horretan zertan jarduteko asmoa duen

Nafarroako Gobernuak eta, oro har, Nafarroako Foru Komunitateak.

Iruñean, 2012ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren, Batxilergoaren modalitate guztien eta erdi eta goi mailako prestakuntza ziklo guztien egitura bere horretan mantentzearen aldeko iritzia.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren, Batxilergoaren modalitate guztien eta erdi eta goi mailako prestakuntza ziklo guztien egitura bere horretan mantentzearen aldeko iritzia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

José Miguel Nuin Morenok, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen eledunak, Erregelamendua rekin bat, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Gobernu zentralak iragan urtarrilaren 31n iragarri zuen Bigarren Hezkuntza aldatuko duela eta, hartara, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak urtebete gutxiago iraunen duela eta ikasturte batez luzatuko direla Batxilergoa eta Lanbide Heziketa. Bestalde, derrigorrezko irakaskuntzak 16 urtera bitartekoa izaten jarraituko du; hau da, derrigorrezko irakaskuntzat hartuko dira hala Batxilergoko nola Lanbide Heziketako lehen maila.

Egungo egiturak derrigorrezko etapa gisa taxutzen du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, izaera terminala eta propedeutikoa duena, tresna- eta prestakuntza-edukiak jorratzen dituena; alegia, laneratzeko eta goi mailako ikasketak egiten jarraitzeko, gehiago ikasteko, prestatzen duena.

Etaparen horrek, bestalde, aniztasunari arreta emateko izaera hartzailea; hau da, prestakuntza komuna ematen du, beharrezkotzat jotzen dena herritar oro gizarteratzeko, ai eta gaitasun indibidualak garatzeko prestakuntza ere ematen du. Gaitasun indibidualen garapenaren bidezko prestakuntza integral bat da.

DBHko azken mailaren helburuak eta edukiak birdefinitzeko arrazoiren bat egonen balitz –aldaketa sozial eta teknologikoak, ikasleen hezkuntza-premia egiaztatuak, egungo curriculumeko disfunczioak edo beste batzuk–, hautazkotasunaren bidez jorratu ahalko lirarteke laugarren mailan.

Hortaz, ez dago zertan aldatu egungo egitura, gutiz finkatuta dagoena.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du DBHren egungo egitura –lau ikasmaila– mantentzearen alde dagoela, bai eta, bere modalitate guztietan, batxilergoaren egitura eta erdi mailako nahiz goi mailako prestakuntza zikloa –bi ikasmaila– ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Gobernu zentralaren aurrean DBHren egungo egitura –lau ikasmaila– mantentzearen alde ager dadin, bai eta, bere modalitate guztietan, batxilergoaren egitura eta

erdi mailako prestakuntza zikloen nahiz goi mailako prestakuntza zikloena –bi ikasmaila– ere.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du horren guztiaren defen-

tsa aktibo bat egin dezan Gobernu zentralaren aurrean.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 2an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Giza Eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntzaren gaia kentzearen aurkako iritzia.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Giza Eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntzaren gaia kentzearen aurkako iritzia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

José Miguel Nuin Morenok, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduarekin bat, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

PPko Gobernuak Hezkuntzako ministro berriak iragan urtarrilaren 31n iragarri zuen Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako curriculumetik kenduko dela Giza Eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntzaren ikasgaia; izan ere, bere ustez, ikasgai horrek eduki eztabaidatuak eta ideologiazko doktrinatzeko edukiak ditu, egiazko herritar-prestakuntza bati legozkiokeenetik harago doazenak. Orobat iragarri zuen curriculum-arlo horren ordean "Herritar-hezkuntza eta hezkuntza konstituzionala" izeneko ezarriko dela.

Erabaki horren aurrean, Izquierda-Ezkerran uste dugu Giza Eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntzaren arloa eta curriculum berariaz baliagarria dela Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, hain zuzen ere, ideologiazko doktrinatzetik ez emateko eta herritar-prestakuntza eta prestakuntza demokratiko bat bideratzeko.

Lehenik eta behin, Hezkuntzari buruzko 2006ko maiatzeko Lege Organikoan Lehen Hezkuntzarako eta Bigarren Hezkuntzarako ezarritako helburu orokorretatik abiatuta zehaztu zen "Giza Eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntza" ikasgaiaren curriculum. Honakoak daude helburu horien artean: "elkarbizitzaren balioak eta arauak ezagutzea eta estimatzea, haiei jarraiki jokatzen ikastea, herritartasuna aktiboki gauzatzeko prestakuntza eta giza eskubideak eta gizarte demokratiko baten berezko aniztasuna errespetatzea"; "gatazkei aurrea hartzeko eta era baketsuan konpontzeko trebetasunak eskuratzea, familian, etxean eta beren harremanen munduko gizarte-taldeetan autonomiaz moldatzeko"; eta "kultura desberdinak, pertsonen arteko desberdintasunak, emakumeen eta gizonen arteko eskubide-berdintasuna eta aukera-berdintasuna, eta ezgaitasunak dituzten pertsonen diskriminaziorik eza ezagutzea, ulertzea eta errespetatzea".

Bigarrenik, Lehen Hezkuntzako arlo horretarako eta Bigarren Hezkuntzako ikasgai horretarako curriculumeko helburuek eta edukiek –aginduzko izaeraz ezarriak hala gutxienezko irakaskuntzei buruzko errege dekretuetan nola curriculumari buruzko Nafarroako dekretuetan– azpimarra jartzen dute herritar-hezkuntzan, ikasleen parte-hartzea izan dadin gizarte-arlo guztietan aktiboa, eraikitzailea, baketsua, kritikoa, gogoetatsua, giza eskubideekiko errespetuzkoa eta gainontzekoekiko errespetuzkoa. Orobat jartzen dute azpimarra autoestimuan, afektibitatean eta autonomia per-

tsonalean; elkartasuna bezalako baloreen ikaskuntzan; emozio-, komunikazio- nahiz gizarte-trebetasunen garapenean; bizikidetasun-arau eta -baloreen balioespenean; Giza Eskubideen Adierazpenetik heldu diren betebeharrak ezagutu eta balioestean, bai eta demokraziaren funtzionamendua ezagutu eta balioestean eta herritarrek beren herritar-betekizunak bete beharrean ere.

Hirugarrenik, Herritartasunerako Hezkuntzak hezkuntza arloko helburuen eta jardueren artean ezartzen du herritartasun demokratiko bat sustatu beharra, nazioarteko beste erakunde batzuek egiten duten bezalatsu. Europar Batasunak hezkuntza-sistemen helburu gisa ezartzen du eskola-erkidegoan egiaz sustatzea balore demokratikoen eta parte-hartze demokratikoaren ikaskuntza, pertsonak herritartasun aktiborako prestatzea helburu, Europako Kontseiluko Ministroen Kontseiluaren 2002ko 12. Gomendioarekin bat. Konstituzioak, berriz, bere 1.1 artikuluan askatasuna, justizia, berdintasuna eta pluralismo politikoa hartzen ditu gizarte-bizikidetasunaren oinarritzko balore gisa, eta 14. artikuluan ezartzen du espainiarrak berdinak direla legearen aurrean, eta debeku dela, hortaz, inolako diskriminaziorik egitea jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozeintan edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta.

Horrenbestez, Espainiako gizarteko sektore jakin batzuek bere garaian eragin zuten gatazkak ez zaie arlo eta ikasgai honen ezaugarriari zor. Tesuinguru horretan, bizikidetasun- eta herritar-balioetan hezi beharra onartzetik eta, hortaz, arau

demokratikoak errespetatetik heldu da ikasgai hori ezarri beharra. Halatan, Nafarroako Foru Komunitateko nahiz Estatuko arauetan alderdi horiek ageri dira jasota, arlo eta ikasgai hori curriculumean egotea justifikatzeko.

Une honetan, arlo eta ikasgai hori ikastetxeetako hezkuntza-proiektuetan ageri da jasota, eta normaltasun osoz garatzen da. Hezkuntza-erkidegoak, oro har, bertan jasotzen diren edukiak onartu ditu.

Hori dela-eta, ondoko erabaki-proposamena aurkeztu dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du Giza Eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntza arloa eta ikasgaia Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako curriculumetik kentzearen aurka dagoela, eta Gobernu zentralari mantentzea eskatzen dio.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Giza Eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntza arloa eta ikasgaia Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako curriculumean mantentzearen alde ager dadin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Giza Eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntza arloa eta ikasgaia Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako curriculumean mantentzearen aldeko defentsa aktiboa egin dezan Gobernu zentralaren aurrean.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 2an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sunsundegui enpresaren salmenta-prozesua burutu dezan.

LANDA GARAPEN, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Nafarroako Parlamentuko Talde Popularrak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Sunsundegui enpresaren salmenta-prozesua burutu dezan, 2011ko azaroaren 18ko 31. Nafarroako Par-

lamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordean izapidetu dadila.

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, espezialitate mediko batzuetako itxaronzerrendak luzatzen ari direla ikusita, hartuko diren neurriei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, espezialitate mediko batzuetako itxaronzerrendak luzatzen ari direla ikusita, hartuko diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamenduak diotenari jarraiki, Nafarroako Gobernuari honako galdera helarazten dio, zehazten den Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Itxaronzerrendak hainbat espezialitatetan bereziki luzatzen ari direla ikusita, zer neurri hartuko ditu Osasun Departamentuak epe laburrean?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak eginiko adierazpen batzuei buruzkoa. Horien arabera, zerga igoeraren xedea zorraren amortizazioa izanen da, beharbada.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak eginiko adierazpen batzuei buruzkoa. Horien arabera, zerga igoeraren xedea zorraren amortizazioa izanen da, beharbada.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia eta Ogasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda Simavilla jaunak Ekonomia eta Ogasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

- Parlamentu honek eta herritarrek kasu egin behar al diote Ekonomiako kontseilariari, publikoki esaten duenean langileei zergak igotzea zorra amortizatzeko balia daitekeela azkenean?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Gobernuko lehendakariak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa Sozietatearen Administrazio Kontseiluko lehendakari kargua hartzeko benetako arrazoari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Gobernuko lehendakariak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa Sozietatearen Administrazio Kontseiluko lehendakari kargua hartzeko benetako arrazoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan.

- Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren Administrazio Kontseiluko lehendakari kargua hartuko duzu zure gain. Zein da horretarako egiazko arrazoa?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, “Tierra Estella” BHIaren inaugurazioan izandako gertakariei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, “Tierra Estella” BHIaren inaugurazioan izandako gertakariei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernu-ko lehendakaria segizio ofizial batekin agertu zen urtarrilaren 30ean “Tierra Estella” BHI, “instalazio berriak” inauguratzeko; instalazio horiek, bidenabar esanda, jadanik

orain dela zenbait hilabete hasiak ziren erabiltzen. Inaugurazio ekitaldian, ikasle talde batek protesta baketsu bat egin zuen, Nafarroako Gobernuaren murrizketen, ikastetxeko garbiketa eta higiene defizitaren, eskola-materialak banatzerakoan izan diren jarrera zekenen eta berogailuak behar bezala ez piztearen aurka.

Antza denez, protesta baketsu horren aurrean, segizio ofizialak ikastetxeari agindua eman zion ikasle eta irakasle horiei sarrera galarazteko, “arrotz arriskutsuak” balira bezala, eta hala egon ziren ordu eta erdi baino gehiago, harik eta segizio ofizialak alde egin arte, eta horrek nabarmen lardaskatu zuen hezkuntza-jarduna.

Gertakari horiek direla eta, parlamentari honek hau jakin nahi du:

- Ba al duzu asmorik aipatu inaugurazioan izan zenuen jokabidea dela-eta ikasleei eta irakasleei barkamena eskatzeko?

- Zer konpromiso hartuko duzu, etorkizunean ez dadin berriz gerta modu onartezinean egindako gisako inaugurazio eta propaganda-ekitaldi bidegaberik?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, bizitokiaren araberako garraio onkologikoari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, bizitokiaren araberako garraio onkologikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilari Vera andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zuk eta zure departamentuak uste al duzue, erreferentziako ospitalearen irizpide batean oinarrituta, nafar herritarrek tratu ezberdina jaso behar dutela, bizi diren eskualdearen araberakoa, eta batzuentzat Gurutze Gorriaren Tutera-Iruña garraio onkologikoa jarri behar dela eta beste batzuentzat, aldiz, ez?

Iruñean, 2012ko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, Lodosako Ibaialde ikastolaren egoerari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Lodosako Ibaialde ikastolaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamenduak dioenari jarraiki, Nafarroako Gobernuari

honako galdera helarazten dio, zehazten den Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Jakina den moduan, Lodosako Ibaialde Ikastola ixteko arriskupean ari da lanean. Baldintza ekonomiko egoki ezak ikastola oso egoera kaxkarrean utzi du eta horrek bere etorkizuna kolokan jarri du. Ikastola honek elkartasun diru-bilketari ekin dio eta jendarte erantzuten ari baldin bada ere, jakina da unean uneko konponbidea baino ez dela.

Gauzak honela, ondokoa galdetu nahi diogu Nafarroako Gobernuari:

Ibaialde Ikastolak egun pairatzen duen egoera ekonomiko txarra dela eta, zein neurri hartzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak Ibaialde Ikastolaren jarraikortasuna bermatzeko?

Iruñean, 2012ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jasok

Galdera, defizita kontrolpean edukitzeko aginduari buruzkoa.

KOLDO AMEZKETA DÍAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Amezketa Díaz jaunak aurkeztutako galdera, defizita kontrolpean edukitzeko aginduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Koldo Amezketa Díazek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko ele-dun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako kontseilari J. Luis Sánchez de Muniáin-ek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurtengo otsailaren 1ean prentsan transkribatutako irati-elkarrizketa batean, PFEZaren tarifa igoeraren bidezko diru-sarrerak areagotzeari dagokionez, milioi horiek "oposizioak eskatzen duen legez murrizketak arintzera bideratuko" ote diren galdetu ziotenean, kontseilariak hitzez hitz erantzun zuen: "Ez, une honetan Gobernu guztiei ezartzen zaigun zeregina da defizita kontrolpean ahalik eta gehien edukitzea. Argi eta garbia da zein den erkidego guztiek, gobernu guztiek –estatuetakoek nahiz erregioetakoek–, duten agindua."

Gobernu honek bere erabakiak hartzeko ahalmenik ez duela ikusita, parlamentari honek ondoko galdetzen du:

- Nor da Nafarroako Gobernuari zeregin hori ezartzen dion ahalguztiduna? Nor da gobernu-erantzule adierazpenetan aipatzen duzun agindu hori ematen dien ahalguztiduna?

Iruñean, 2012ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Koldo Amezketa Díaz

Galdera, Arbizuko Udalarekin hitzartutako laguntza ordaintzeari buruzkoa.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, Arbizuko Udalarekin hitzartutako laguntza ordaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jacak, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentaria denak, Legebiltzarreko Erregelamenduari jarraiki, ondoko ahozko galdera egin nahi du Hezkuntzako Kontseilari Jose Iribas jaunak Hezkuntza Batzordean erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak hitzarmena sinatu zuen Arbizuko Udalarekin 0-3 urte bitarteko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe bat eraikitzeko. Akordio horretan jaso zen gastuaren %65 ordainduko zuela Gobernuak. Eraikina egin da eta Arbizuko Udalak oraindik ez du Gobernuak hitzarmenean iragarritako diru kopurua jaso. Aurrekontuetan, berriz, ez dugu ikusi horretarako dirurik dagoenik.

Gauzak honela, ondoko galdera egin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak noiz ordaintzeko asmoa du jada Arbizuko Udalarekin hitzartua duen lagun-

tza? Beraz, Arbizuko Udalarekin hartutako konpromisoa noiz betetzeko asmoa du?

Iruñean, 2012ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Galdera, Barne Produktu Gordinak 2012an izanen duen igoeraren gaineko aurreikuspen berriari buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Barne Produktu Gordinak 2012an izanen duen igoeraren gaineko aurreikuspen berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako eta Estatuko ekonomiaren uzkurteak % 0,3ko jaitsiera pairatu du 2011ko azken hiruhilekoan; horrela, hasierako aurreikuspenetatik beheiti geratu da, hain zuzen ere.

Nazioarteko Moneta Funtsak eta Espainiako Bankuak, berriz, Espainiako Estatuaren heldu den urteko Barne Produktu Gordinaren indizeari buruzko beren estimazioak jaitsi dituzte.

1. Zein da Nafarroako Gobernuaren estimazio berria, Nafarroako Komunitatean Barne Produktu Gordinaren 2012ko hazkundeari dagokionez? Zeintzuk izan daitezke BPGaren jaitsiera aurreikusgarriaren ondorio garrantzitsu eta nabarmenak?

Iruñean, 2012ko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, Hizkuntzen Autoikaskuntzako Nafarroako Zentroari buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Hizkuntzen Autoikaskuntzako Nafarroako Zentroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Hezkuntzako kontseilari Jose Iribas Sánchez de Boado jaunak idatziz erantzun dezan:

Zer irizpide hartu ziren kontuan Hizkuntzen Autoikaskuntzako Nafarroako Zentroko burutzak azkenekoz birmoldatu zirenean?

Zeintzuk dira zuzendari kudeatzaile Pedro Pegenaute jaunaren egungo eginkizunak? Eta koordinatzaile Pedro Cardeñosa jaunarenak?

Non daude kokatuta Pegenaute jaunaren eta Cardeñosa jaunaren bulegoak?

Kontuan hartuta ia segurua dela aurrekontu-murrizketen ondorioz Hizkuntzen Autoikaskuntzako Nafarroako Zentroan lan-bolumena jaistea, kontseilari zaren horrek aurreikusita al duzu burutzen kopurua murriztea?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, “Félix Garrido” osasun mentaleko egoitza abian ez jartzeko arrazoiei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jasok aurkeztutako galdera, “Félix Garrido” osasun mentaleko egoitza abian ez jartzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamendua dioenari jarraiki, Nafarroako Gobernuari honako galdera helarazten dio, idatziz erantzun dezan:

“Félix Garrido” Osasun Mentaleko egoitza 2010eko abenduan inauguratu zen arren, oraindik ez da martxan jarri. Zein da arrazoia? Noiz irekiko da azkenik?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 31an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jasok

Galdera, kirol klubetarako dirulaguntzen deialdiei buruzkoa.

ENRIQUE MARTÍN DE MARCOS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Enrique Martín de Marcos jaunak aurkeztutako galdera, kirol klubetarako dirulaguntzen deialdiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Enrique Martín de Marcos jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuaren dirulaguntzen ondoko deialdiei buruzko galdera aurkeztu du, departamentu horrek idatziz erantzun dezan:

— 71/2011 Foru Agindua, martxoaren 3koa, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak emana, kirol klubek eta kirol klub filialek Espainiako, autonomia erkidegoen arteko eta nazioarteko lehiaketa ofizial ez-profesionalen parte hartzeko dirulaguntzen 2011. urteko deialdia onesten duena.

— 72/2011 Foru Agindua, martxoaren 3koa, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak emana, 2011. urterako Nafarroan kirol ekitaldi eta ikuskizunak antolatzeko kirol taldeei eta kirol talde filialei dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak onesten dituena.

Ondokoak idatziz erantzutea eskatzen da:

Zein da baimendutako eskabideen zerrenda banakatua? Zer diru-kopuru esleitu zaio horietako bakoitzari?

Zein da ebatzi gabeko edo ezetsitako eskabideen zerrenda banakatua? Zenbateko dirulaguntza eskatzen zen horietako bakoitzean?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Enrique Martín de Marcos

Galdera, jakiteko zergatik Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ez dion erantzun iragan azaroaren 3an AHTaren gainean eginiko galderari.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ez dion erantzun iragan azaroaren 3an AHTaren gainean eginiko galderari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda Simavilla jaunak idatziz erantzun dezan:

2011ko abenduaren 15ean, parlamentari honek galdera bat aurkeztu zion Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda Simavilla jaunari –galderak 8-11/PES-00231 espediente zenbakia du–, jakite aldera Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda Simavilla jaunak zer dela-eta ukatzen dien informazioa horretarako eskaria aurkeztu duten parlamentu-taldee. Galdera hari emandako erantzunean, Nafarroako Gobernuak zioen: “bat ere ez. Eskatutako informazio guztia ematen ari gara, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 2011ko irailaren 12ko Testu Bategineko 14. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.”

Hori dela-eta, parlamentari honek hau jakin nahi du:

- Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak zer dela-eta ez dio oraindik erantzun parlamentari honek iazko azaroaren 3an erregistratutako galderari, “8-11/PES-00218” kodea daramanari?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Eskola Mapa berriaren prestaketari buruzkoa.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, Eskola Mapa berriaren prestaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jaca, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari.

1- Noizko egiteko asmoa du Hezkuntza Departamentuak Eskola Mapa berria?

2- Zein da Eskola Mapa egiteko departamentua erabiltzen ari den ibilbide orria?

3- Mapa eskolarra egiteko garaian, ba al du departamentuak ikastetxeen iritzia jasotzeko asmorik? Zein modu erabiliko dira iritzi jasoketa hori burutzeko?

4- Mapa eskolar honek izanen al du zerikusirik ondoko inbertsio planarekin?

Iruñean, 2012ko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Galdera, Hezkuntza Departamentuko zenbait kontusaili buruzkoa.**AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuko zenbait kontusaili buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatziko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jaca, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Ganberako Araudiak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari.

Aurrekontuetan ageri diren bi partida hauen inguruko informazioa nahi du parlamentari honek:

410001- Eraikuntza lanak eta ekipamenduak	41000 1	41800	6020	325100	Nafarroa 2012 Plana. Zentro berriak eraikitzea eta obrak. Ikastetxeetako plana	5219424
410001- Eraikuntza lanak eta ekipamenduak	410001	41800	7609	325103	Nafarroa 2012 Plana. Zentro berriak eraikitzea eta obrak. Ikastetxeetako plana	3210506

Aurten bi partida horietan aurreikusitako diru kopurua zein ikastetxetan, zein lan egiteko erabiliko da (ikastetxe berriak, handitzeak, moldaketak, ...) dena delako lanak)?

Aurreikusita al dago aurrekontu hauetan ageri-

ko ez den diru kopururik beste ikastetxeren batean lanei ekiteko?

Iruñean, 2012ko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Galdera, Tuterako nekazaritza-elikagaien hiriko mantenimendu-zerbitzuari buruzkoa.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako nekazaritza-elikagaien hiriko mantenimendu-zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Tuterako nekazaritza-elikagaien hiriak (SPRIN sozietate publikoak sustatutako industrialdea) baldintza-agiri bat onetsi zuen, industrialdearen mantentze-lanak kontratatatzeko, baina agiri horretan ez zuen sartu zerbitzu hori ematen ari ziren langileen subrogazioa.

Ez zen subrogazioa sartu, nahiz eta betebeharrak hori jasota egon Nafarroako industria siderometalurgikorako hitzarmen kolektiboan, eta hori da hain zuzen ere kasu honetan aplikatu beharreko hitzarmena.

Mantentze-lanak Imtech Spain enpresa egiten ari zen, horretara zazpi langile jarrita, nekazaritza-elikagaien hiria inauguratu zenez geroztik. Enpresa esleipen-hartzailea Madrilera Cofely enpresa da orain.

Nafarroako Gobernuaren jabetzakoa den enpresa publiko batek ez du kasu honetan errespetatu langileen subrogaziorako eskubidea.

Hori dela eta, hau jakin nahi dugu:

– Zergatik ez zen baldintza-agirian jaso, nahiz eta aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboak hori exijitu, nekazaritza-elikagaien hiria inauguratu zenez geroztik haren mantentze-lanak egiten zituzten langileen subrogazioa?

– Nafarroako Gobernuak nola berrezarriko ditu kaltetutako langileei urratutako lan-eskubideak?

– Nor edo nortzuk dira industrialde horren mantentze-lanak egiten zituzten langileen eskubideak urratu dituen kontratazio-prozedura horren arduradunak? Nafarroako Gobernuak erantzukizunak exijituko al ditu?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordea berritzeko hauteskundeetarako deialdia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen gehiengoak erabaki du, 2012ko urtarrilaren 30ean, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzorderako hauteskundeak sustatzea, eta behar den aurreabisua egin zaio Foru Komunitateko hitzarmen, hauteskunde eta elkarten erregistro-bulego publikoari.

1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 33.6 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, bidezkoa da Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hauteskunde-deialdia egitea.

Hori horrela, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordea berritzeko hauteskundeetarako dei egitea. Hauteskunde prozesua erabaki honen eranskinean jasotako egutegiari jarraituz egingen da.

2. Agintzea Erabaki hau eta hauteskundeak sustatzeko idazkia Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean argitara daitezen. Era berean, Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an.

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANSKINA

Hauteskunde prozesuaren egutegia

- Hauteskunde mahaia eratzea: 2012ko martxoaren 5a.
- Hautesleen behin-behineko zerrenda erakustea: 2012ko martxoaren 6an, 7an eta 8an.
- Erreklamazioak: 2012ko martxoaren 9ra arte.
- Hautesleen behin betiko zerrenda argitaratzea: 2012ko martxoaren 12a.
- Hautagai-zerrendak aurkeztea: 2012ko martxoaren 14tik 23ra bitartean.
- Hautagai-zerrendak aldarrikatzea: 2012ko martxoaren 26a.
- Bozketa: 2012ko apirilaren 2tik aurrera. Hauteskunde mahaia ezarri behar du egun zehatza.

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

1/2012 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 18koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 1/2012 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 18koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 162. artikuluan xedatutakoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea ezagutzen duela 1/2012 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 18koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1/2012 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 18koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikulua xedatzen duenez, Nafarroako Foru Komunitateak, balio erantsiaren gaineko zergaren esparruan tributuak ezartzeko ahalmena erabiliz, Estatuan unean-unean indarra duten oinarrizko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berak aplikatu behar ditu; hala ere, aitorpena eta ordainketak egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu.

Bestetik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 54.1 artikuluan, Nafarroako Gobernuaren arauak emateko eskumena arautzean, ezartzen denez, tributu araubide komunaren aldaketa batek Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoari jarraikiz behartzen badu Estatuan unean-unean indarra duten arau substantibo eta formal berak Foru Komunitatean aplikatzera, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak haren esku utzia baitu, behar diren foru legeen mailako arauak ematen ahalko ditu tributu arloko foru legeak aldatzeko. Aipatutako abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 54.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, legegintza delegatu hori osatzen duten Nafarroako Gobernuaren xedapenek tributu harmonizazioaren gaineko legegintzako foru dekretuen titulua hartuko dute.

Defizit publikoa murrizteko aurrekontu, zerga eta finantza arloko premiazko neurrien gaineko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege Dekretuak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatu du, etxebizitzak ematean eskatzen ahal den zerga tasari dagokionez, 2012 urtera arte luzatu baitu emate horiei aplikatzen zaien %4ko zerga-tasa murriztua.

Arestian adierazitakoarekin bat, beharrezkoa da Foru Komunitateak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeari dagozkion aginduak egokitzea Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko araudiak araubide arruntean izan duen aldaketara.

Aipatutako legegintza delegatua erabiliz, tributu harmonizazioaren gaineko legegintzako foru dekretu baten bidez ematen dira abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 54.1 artikulua horri jarraikiz Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzeko behar diren arauak, hau da, 2012 urtera arte luzatzeko etxebizitzak emateari aplikatzen zaion %4ko zerga-tasa murriztua.

Foru arau horren indar hartzearen ondorioak eta Estatuko arau baliokidearenak batera izan daitezzen, berariaz xedatzen da zein egunetatik aurrera izanen duen eragina.

Horiek horrela, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak 2012ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen hamabosgarren xedapen iragankorra honela gelditu da:

“Hamabosgarren xedapen iragankorra.-Etxebizitzien emanaldiari aplikatu beharreko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tasa.

2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin eta soilik 2012ko abenduaren 31ra arteko indarra-ekin, ehuneko 4ko zerga-tasa murriztua aplikatuko zaie foru lege honen 37.Bat.1.7 artikulua aipatzen dituen ondasun emanaldiei.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, ezartzen dituen ondorioekin.

